



Andoainek FLAC zinemaldiaren bi saio hartuko ditu maiatzean

Andoainek aurten Latinoamerika, Antilla eta Karibeko Zinema Jaialdiko (FLAC) bi proiektzio hartuko ditu, Emigrad@s Sin Fronteras kolektiboak antolatuta. Zinemaldia apirilaren 23tik maiatzaren 29ra bitartean ari da egiten Euskal Herriko hainbat udalerritan.

Andoaingo emanaldiak Bastero Kulturgunean izango dira, eta honako hauek izango dira proiektatuko diren filmak:

-  Maiatzak 7, 18:00etan: Un mundo recobrado
-  Maiatzak 8, 18:00etan: Este fue nuestro castigo
-

Sarrera doakoa izango da, lekua bete arte.

FLAC zinemaldiaren helburua da zinema tresna gisa erabiltzea giza eskubideen, bizikidetzaren eta aniztasunaren balioak sustatzeko, Latinoamerika, Antilla eta Karibeko errealitateak gerturatuz.

Proiektzioen bidez, ikus-entzuleek hausnarketarako eta elkarrizketarako espazioak izango dituzte, landutako gaiei buruz sakontzeko aukera eskainiz.

Andoaingo Udalak ekimen honetan parte hartzen du kultura-aniztasuna eta gizarte-balioak sustatzeko konpromisoaren baitan.

Andoain, 2026ko apirilaren 29a.